


## Zazpi izarrak

Koldo Amestoy-ek kontuata



Laborari horrek bere barrukian baditu behiak, eta behiekin bi idi, idi ederrak. Gau batez, idiak desagertu zitzaizkiola eta auzoek erranik bi gizon, bi ohoin behar bada hortik pasatu zirela. Biharamunean, ez zituen atxeman bi idiak, orduan, igorri zuen bere mutila joan zedila xeka bi idiak eta ahal bazuen bi ohoinak ere bai ; mutila inguruetan denetan auzo eta herri inguruetan etxez etxe ibili eta galdegin zien ea ikusi ote zituzten bi idiak eta bi lapur beharbada, bi ohoin.

Ez nehork ez zuen deus ikusi, orduan, mutila etxerako bidean lotsaturik bere amatxiren etxera lo egitera joan zen. Biharamun goizean, jaunak ez zituen atxeman ez idiak, ez ohoinak, ez eta mutila ere ; orduan, etxeko neskatoa igorri zuen joan zedila bi idiak, bi ohoinak eta mutilaren bila. Neskak etxea utzi orduko etxeko xakurra gibeletik joan zitzaion ; eta joan ziren inguruetan denetan, herrietan, auzoetan, etxez etxe, galdegiten : « ikusi ote dituzue bi idi eta bi ohoin beharbada, eta mutil gazte bat ere hauen gibeletik ».

Ez, nehork ez zuen deus nehor ikusi. Orduan, neskatoa lotsatua, eta laborari etxera ez baitzuen itzuli nahi bere lagun baten etxera gau pasatzera joan zen.

Biharamunean, jaunak ez zituen atxeman bere barrukian bi idiak ez eta ohoinak, ez eta mutila, ez neska ere, xakur ttipia ere ez. Orduan bera abiatu zen auzoetan denetan, inguruan denetan etxez etxe galdegiten : « ikusi ote dituzue bi idi eta hauekin bi ohoin, mutil gazte bat beharbada, eta neskato bat, xakur ttipi batekin. »

Ez nehork ez zuen horrelakorik ikusi. Orduan, gure gizona kexu kexu itzuli zen etxerako bidean eta hortxe zubi baten gainean gelditu zen gogoetan. Betitik entzun dut erraiten bakoitxak zerbait egiten badu zeruak laguntzen duela, eta zuk zeruari begira ez nauzu lagundu.

Nik egin dut egin behar nuena. Izan naiz bilatzen bi idiak, bi lapurrak, mutila, neska, xakurra eta ez nauzu lagundu ; gure gizona kexu orduan zeruari hasi zitzaion birauka, sakreka, maldizioka, mehatxuka ; zeruari ez zaio batere hori gustatu. Eta kexu, ba, bi idiak, bi ohoinak, mutil gaztea, neskatoa eta xakur ttipia bai eta ere jauna bera zazpiak bota ditu hantxe zerura.

Zeruan orain zazpi izar berri daude, izar multxo hori zazpi izarrak deitzen dugu. Ongi begiratzen baduzu ikusiko duzu bi daudela hurbil hurbil, bi hauek dira bi idiak, ondoan beste bi, bi ohoinak, bostgarrena mutila bera, seigarrena etxeko zerbitzaria, neska ; ondoan, itzuli mitzulika xakur ttipia eta zazpigarren izarra ba jauna hura bera. Hortxe dituzu zazpi izarrak zartaina, karru handia, zeru zaharreko zazpi mila izar zuhur eta zintzoekin batera hor daude zazpi izar berri.

Zeruan orain zazpi izar berri daude, izar multxo hori zazpi izarrak deitzen dugu. Ongi begiratzen baduzu ikusiko duzu bi daudela hurbil hurbil, bi hauek dira bi idiak, ondoan beste bi, bi ohoinak, bostgarrena mutila bera, seigarrena etxeko zerbitzaria, neska ; ondoan, itzuli mitzulika xakur ttipia eta zazpigarren izarra ba jauna hura bera.

Hortxe dituzu zazpi izarrak zartaina, karru handia, zeru zaharreko zazpi mila izar zuhur eta zintzoekin batera hor daude zazpi izar berri.